

Lau pertsona kartzelatzeke agindu dute Oiongo gizon baten heriotzarekin lotuta

Gizonak jana banatzen zuen, eta, hainbat hedabideren arabera, egunean irabazitakoa eta bizikleta lapurtzeko jipoitu zuten, Logroñon

Edu Larzanguren -Igor Susaeta

Oionen (Araba) bizi zen gazte baten heriotzarekin lotura dutelakoan, Logroñoko (Erioxa, Espainia) 3. Instrukzioko Epaitegiko epaileak lau pertsona behin-behinean eta bermerik gabe kartzelatzeke agindua eman zuen atzo -bakarrak deklaratu zuen-, Errioxako Justizia Auzitegi Nagusiak kaleratutako ohar baten arabera. Ikerketaren harira, Espainiako Polizia 14 eta 25 urte bitarteko sei pertsona atxilotu zituen herenegun. Bi adingabeak dira, eta horiek Adingabeen Fiskaltza-aren aurrean deldaratzekoak ziren atzo.

Joan den ostiralean hil zen 34 urteko gizonak. Aurreko egunean topatu zuten Logroñon, Eboko erriberako parkean, konortetik gabe eta indarkeria zantzuekin. Udaltzainek aurkitu zuten, eta erletxera eramán zuten. Edonola ere, hurrengo egunean hil zen. Ikertzaileen arabera, hildakoa Oionen bizi zen, eta marokoarra zen jatorriz.



Isam Haddour da hildakoa. 34 urte zituen. BERRIA


Zabaldututaren arabera, hildakoa Isam Haddour zuen izena, eta bizikletaz jana banatzen egiten zuen lan. Oiondik egunero joaten omen zen Logroñora, lanera. Bost kilometro daude bi udalerrien artean. Logroñoko hedabideek gaineratu dutenez, ostegunean ez zen etxera itzuli, gazte talde batek jipoitu egin zuelako Eboko parkean, egunean irabazitakoa eta bizikleta lapurtzeko.

Zaurien eta hotzaren eraginez hil zen. Hipotermia zantzuak zituen ospitaleratu zutenean. Poliziaren iturriek nabarmendu dutenez, gizonak salbatzeko aukera egongo zen, erasotzaileek larrialdi zerbitzuei abisua eman izan baliete.

Biktima ezaguna zen Oionen. Eraikuntzan eta nekazaritzan egin zuen lan, eta haren hainbat senide ere Arabako Errioxako herri horietan bizi dira.

Urkulluk asteon espero du eskumenen lehen blokea eskualdatzeko bilera

BILBO • Inigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakariak atzo Radio Euskadin adierazi zuenez, espero du aste honetan biltzea Gernikako Estatutuan jasotako eskumenak direla -eta Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak osatutako Transfrentzien Batzorde Mistoa, espere eskumenak eskualdatzeko, baita Ondarroako (Bizkaia) itsas egoitza ere.



Joan den asteazkenean gaztea atxilotu zuten unea.

Udaltzainen eraso salatua zuten gaztea epaitzen hasi dira Donostian

DONOSTIA • Donostiako udaltzainek 18 urteko gazte bat atxilotu zuten joan den asteazkenean, eta agintaritzaren aurkako atentatua leporatu zioten. Legez kanpoko atxiloteta eta udaltzainek egindako salaketa faltsua argudiatuz, gazteak salaketa jarri zuen. Atzo hasi zen epaiketa, eta, gaztearen defentsaren arabera, akusazioak, hau da, udaltzainek, akordio bat proposatu zuten. Defentsak ukatu egin dio, ordea.

Durangok Arriolari proposatu dio «lantalde batek» definitzea proiektu urbanistikoa

DURANGO • Trenbidea zegoen lekuan PERI proiektu urbanistikorekin aurrera ez egitea erabaki zuten Durangon (Bizkaia), erreferendum bidez, martxoaren 14an. Durangoko Udaleko ordezkariak Inaki Arriola Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza sailburuarekin bildu ziren atzo, eta proposatu zioten proiektua «lantalde batek» definitzea.

Hilberriak

Eskelak

(0034) 943-30 40 30 • eskelak@bidera.eus

Berria.eus/eskelak

BERRIAlagunek eta BERRIAlagun harpidedunek %25 merkeago izango dituzte eskelak

Lagundu
gaituzuen
GUZTIEI
ESKER
MILA
ETXEKOAK



Eskelak (0034) 943-30 40 30 • eskelak@bidera.eus • Berria.eus/eskelak

BERRIAlagunek eta BERRIAlagun harpidedunek %25 merkeago izango dituzte eskelak